

# JARDUERA TXOSTENA

## 1999

## AURKIBIDEA

AURKEZPENA

SARRERA

### I. KAPITULUA

EKONOMIA ETA GIZARTE ARAZOETARAKO BATZORDEA

### II. KAPITULUA

BATZORDEAREN LEGEAN EZARRITA DAUDEN FUNTZIOEN EKITALDIA

- Batzordearen kontsultara jarritako eta irizpena emandako arazoak
- Ikerketen eta txostenen lantzea
- Egoera sozio-ekonomikoari buruzko txostenaren lantzea

### III. KAPITULUA

ERAKUNDE ARTEKO HARREMANAK ETA JARDUERAK

### IV. KAPITULUA

TRESNA ETA PERTSONA BALIABIDEEN KUDEAKETA

- Aurrekontua
- Tresna baliabideen kudeaketa
- Euskadiko EGAB-ko partaideen eta karguen berritzea

### V. KAPITULUA

EUSKADIKO EKONOMIA ETA GIZARTE ARAZOETARAKO BATZORDEARI  
EZARRI DAKIOKEEN LEGEDIA

### ERANSKINAK

#### I. ERANSKINA

- Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeko organoen eta batzordeen osaketa

#### II. ERANSKINA

- Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeko organoek eta batzordeek egindako bilkurak

#### III. ERANSKINA

- Auditoretza txostena

## AURKEZPENA

Memoria honek 199k ekitaldian Euskadiko Ekonomia eta Gizar-Arazoetarako Batzordeak egin dituen jarduerak biltzen ditu.

Iaz Kontseiluaren lehen Memoria argitaratu ondoren, hau da, Euskal E.E.G.A.B.ren jardunbidea arautzen duten oinarriak labur bilduz azaldu zituena, 1999ko memoria bost kapitulutan antolatu da; lehen kapituluan, hemen ere labur bilduta, Kontseiluaren izaera eta jarduteko oinarriak adierazi dira.

Beste alde batetik, II. Kapituluak Kontseiluari buruzko Legean aurreikusi diren funtzioek 199ko ekitaldian izan duten betearazpena azaldu da; Kontseiluak kontsultatu eta irizpena jaso duten gaiak, azterlan eta txostenen gertuketek duten egoera eta Txosten Sozioekonomikoaren Kontseiluari buruzko Legean ezarri dena betez, "Euskal Autonomia Erkidegoaren Egoera Sozioekonomikoa 1998 – Urteko Txostena" izenburuarekin argitaratu da eta 1998 urteko egintza ekonomiko eta sozial garrantzitsuenak islatzen ditu. Ildo horretatik, adierazi behar da 1998ko Txosten Sozioekonomikoan azaltzen diren ondorio, emaitza eta proposamenak Euskal E.E.G.A.B.en eskuordetuta dauden talde eta erakunde guztien adostasun osoa jaso dutela.

III. kapituluak erakundeen arteko harremanak eta Kontseiluak 1999an zehar burutu dituen jardueak aztertzen dira.

IV. kapituluak Kontseiluren bitarteko materialen eta giza baliabideen kudeaketa azaltzen da. Adierazi behar da Kontseiluari buruzko Legean eta horren Jardunbideari buruzko Araudian ezarri diren aurreikuspenekin bat, 1999 urtearen hasieran Kontseiluko kideen berriztapenaren prozesua hasi zela eta horrek 2000 urte osoa iraungo duela.

V. kapituluak Euskadiko Ekonomia eta Gizarte-Arazoetarako Batzordeari aplikatu dakiokeen legegintzako arautegia azaltzen du.

Interesgarritzat jo da eranskinetan Kontseiluko organo eta batzordeen eerauketaren berri ematea, eta baita horiek egiten dituzten bilerena ere. Aldi berean 1999ko ekitaldiko kontuen auditoretzari buruzko txostena sartu da.

Bukatzeko, eta Kontseiluko kideak laster aldatuko direla kontuan hartuta, argi adierazi nahi dut Kontseiluak aurrera egiten jarraitzeko duen gogoia, bere eskumeneko betearazpenetan halburu berriak eskuratzen jarraitzeko eta gizarteari ekarpen berriak eskaintzen; halaber, gure eskerrik zintzoenak hala zuzenean nola zeharrean Euskadiko Ekonomia eta Gizarte-Arazoetarako Batzordea errealitate eta gure gizartea eraikitzeko eta tazutzeko nahitaezko erreferentzia bihurtzeko gurekin lankidetzan aritu diren erakunde, organismo eta norbanako guztiei.

**Fco. Javier Mongelos Oquiñena**  
**EUSKADIKO EKONOMIA ETA GIZARTE ARAZOETARAKO BATZORDEKO**  
**LEHENDAKARIA**

## **SARRERA**

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeko Funtzionamenduko Araubidea 1997ko abenduaren 18an egin zen Osoko Bilkuraren erabakiaren bidez onetsi zen. Beraren 14. artikuluko c) atalak Osoko Bilkuraren zereginen barruan "Jardueren Urteko memoria onestea" dagoela esaten du.

Aipatutako arau ezarriari jarraituz, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen 1999. urteko memoria hau azaldu da, Batzordeko Osoko Bilkurak 2000ko Apirilaren 12ko bilkuran onetsia.

Agiri honen edukiak bat datoz aipatutako bilkuran onetsitakoekin.

**Fco. Javier Hernández Bilbao**  
**EUSKADIKO EKONOMIA ETA GIZARTE ARAZOETARAKO BATZORDEKO**  
**IDAZKARI NAGUSIA**

## I. KAPITULUA- EUSKADIKO EKONOMIA ETA GIZARTE ARAZOETARAKO BATZORDEA

Ekainaren 27ko 10/1997 Legea, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeari buruzkoa, EHAA, 141. zk., 1997ko uztailaren 28koa, Eusko Jauriaritzako eta Eusko Legebiltzarreko izaki aholku-emale bezala sortu zen, Euskal Herriko ekonomia politikoan interes ekonomiko eta sozial ezberdinen partehartzea eraginkorra izan dadin. Era berean, Euskadiko Autonomia Erkidegoaren politika sozio-ekonomikoan topaketa-foro eta interes ekonomiko eta sozialen partehartzeko bidea bezala sortzen da.

Era honetan, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea, berezko nortasun juridikoarekin, Autonomia Erkidegoko Administrazioaren ezberdina, bere betebeharrak betetzeko ahalmen osoarekin, Jauriaritza eta Legebiltzarren independentziarekin, Lehendakariak izendaturiko eta lau multzotan banaturiko 32 partaideez osatzen da:

- ✓ a) taldea: hemengo partaideak erakunde eta konfederazio sindikalek izendatzen dituzte.
- ✓ b) taldea: hemengo partaideak Euskal Herriko Autonomi Erkidegoko enpresa erakundeek izendatzen dituzte, enpresarien erakunde ordezkariak dutenak.
- ✓ c) taldea: hemengo partaideak ondoko Autonomia Erkidegoko sektore, erakunde, entitate edo elkarteek izendatzen dituzte: merkataritza, industria eta nabigazio ganbarek; aurrezki-kutxek eta finantza erakundeek; kooperatibek; akziokako lan-baltzuek; arrantzako elkargoek; nekazaritzako elkargoek; kontsumitzaileen elkargoek eta Euskal Herriko Unibertsitateak.
- ✓ d) taldea: hemengo partaideak esperientzia eta independentzia, eta gaitasun ezagunen pertsonak izendatuak dira, batzordeko sortze-Legean dioenarekin ados egonik.

Honela izendatutako Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeko partaideek, dagokien eginkizunetan autonomia eta independentzia osoz jokatzen dute, lau urteko aldirako hautatuak izanik, bere berrautatzeari uko egin gabe.

Batzordearen funtzioen garapen egokia izateko, organo batzuk sortzen dira, elkargoko kide direnak (Osoko Bilkura, Batzorde Iraunkorra eta Lan-Batzordeak), zein pertsona bakarrekoak (Lehendakaria, Lehendakari-ordea eta Idazkari Nagusia). Osoko Bilkura batzordearen borondateko erabakien eta formazioaren organo gorena da, eta batzordeko partaide guztiek osatzen dute.

Batzordearen funtzionamendua ekainaren 27ko 9/1997 Legea, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeari buruzkoa, Batzordeko Funtzionamenduaren Araubideak eraentzen du. Hau Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak 1997ko otsailaren 18an, EHAA, 10. zk., 1998ko urtarrilaren 16an, eta batzordeak berak bere garapenerako eman dituen arauak eta erakundeek onetsia dago.

Bide honetan eta arautegian bildutakoari jarraituz, ekonomia eta gizarte politikarekin harremana duten gaien buruzko txostenen, erabakien eta irizpenen jaulkipena – Gobernuak edo Eusko Jurlaritzak eskaturik, edo berezko ekimenez- Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeari dagokio. Halaber, batzordeak Gobernuari eta Eusko Jurlaritzari urtero Euskal Autonomia Erkidegoaren ekonomia eta gizarte egoerari buruzko iritziak adierazten dituen memoria aurkeztuko dio.

## **II. KAPITULUA – BATZORDEKO LEGEAN EZARRITA DAUDEN FUNTZIOEN EKITALDIA**

Indarreko Legean esaten duenarekin bat egonik, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak 1999. urtean zehar bere kontsultara jarritako arazoei buruzko irizpen bakarra jaulki du. Halaber, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak Jurlaritzari, EAEko ekonomia eta gizarte egoeraren gaineko iritziak azaltzen dituen urteroko memoria igorria dio.

### **BATZORDEAREN KONTSULTARA JARRITAKO ETA IRIZPENA EMANDAKO ARAZOAK**

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak 1999. urtean zehar irizpen hau eman du:

Turismo Ibilgailuen bidezko Hiriko eta Hiriarteko Garraio Publikoari buruzko Lege Dekretuaren proiektuari buruzko 1/99 IRIZPENA.

Irizpena Batzordearen funtzionamenduko Araudian ezarritakoaren arabera onetsia izan eta gero, behar bezala argitaratua izan da.

Halaber, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak, Eusko Jurlaritzak eskaturik, 1999. urtean zehar “Euskadiko Kooperatibei buruzko ekainaren 24ko 4/1992 Legea aldatzeko Lege Aurreproiektuari” buruzko Irizpenaren lantzeari ekin dio, baina beharrezko adostasuna ez da lortu Irizpen hori jaulkitzeko.

### **IKERKETEN ETA TXOSTENEN LANTZEA**

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeko otsailaren 10eko eta ekainaren 18ko Batzorde Iraunkorretan, batzordeko partaideei aldeztu aurretik eskatutako gaiak aztertzeari ekin zitzaion, kasu bakoitzean gaien azterketa eta ikerketa egiteko Berezko Ekimena motaren pean. Azkenean ondorengoetara laburbilduak geratu ziren:

- LANA ETA EKONOMIA - "EAEan degradatutako tokien azterlana. Erakunde-politikak eta beraien eraginkortasuna. Tokien beherakada."
- PRESTAKUNTZA ETA IKASKUNTZA - "Unibertsitate-irakaskuntza EAEan. Eskola-porrota, finantzaketa eta tituluen egokitzapen ekonomikoaren beharra, erreferentziadun herrialdeekin parekatzeko azterketa."
- INGURUGIROA - "Ingurugiroaren egoera EAEan. Ingurugiroaren azpiegiturak. Politika publikoen azterketa"
- AURREKONTUA ETA GASTU PUBLIKOA - "Gastu publikoaren azterketa. Aurrekontu oreka eta bere banaketa gizarte zainketa, osasun gastua, hezkuntza gastua eta azpiegiturretan inbertsioaren artean, epe erdi eta luze ikuspegitik. Berrantolakuntza politika."
- EUROPAKO BATASUNA - " UEaren hedapena eta 2004. urterako Euskadirentzako Europako diruak. "

Momentuz, dagokien txostenak egiteke uzten dira, Batzorde Iraunkorretan erabaki diren bezala.

## EAEKO MEMORIA SOZIO-EKONOMIKOAREN LANTZEA

Erakunde honek egiten duen Euskadiko Autonomia Erkidegoaren bigarren memoria sozio-ekonomikoa Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeko Osoko Bilkurak onetsi zuen 1999ko uztailaren 14an egindako ohizko bilkuran. Era honetan, organo honek, beste eginkizunen artean, urteroko memoria bat egin eta Gobernu eta Jaurlearitza emateko legezko manua betetzen da..

Memoria honetan, urte bereko irailean argitaratua *1998. urteko Euskadiko Autonomia Erkidegoaren egoera sozio-ekonomikoa-Urteroko Memoria* izenburuarekin, lan deskribatzaile garrantzitsua egiten da, urteko ekonomia eta gizarte gertaera nabarmenak laburbilduz, eta Euskadiko Autonomia Erkidegoan dagoen egoerari buruzko gizarte eta ekonomia agente nagusiek elkarbanatutako ikuspegia eskainiz. Memorian EGABk errepresentatzen dituen talde eta erakunde ezberdinek ados jarritako eta kapitulu deskribatzaileak aurretik aurkeztutako ondorioak, iritziak eta proposamenak azaltzen dira.

Hiru ezaugarri nabarmen bereizi behar dira 1998ko saio honetan.

Lehena Lan-Batzorde honetako eta geroago onartuko zuen Osoko Bilkurako partaide guztien artean lortutako elkarrizketa eta adostasuna maila nabarmena da, talde ezberdinen adostasun osoko testua egiten utzi baitu.

Bigarren, bilera ezberdinetan izandako elkarrizketa giro onagatik eta partaideek egindako lan biziagatik, araudiak ezartzen duen denbora epe laburrean eta estu samarrean egin ahal izan da.

Hirugarren, nabarmendu behar dugu euskal egoera sozio-ekonomiko konplexuaren tarte komunen interpretazioaren bilatzeak, interes ezberdinez eta askotan kontrajarriak, ez duela galarazi ez bere edukien zabalteza, ez haren aberastea.

1998. urteko oroitidazki sozio-ekonomiko hau ezinbesteko lau zatitan egituratu da, aurrekoan baino bat gehiago, eta bakoitzaren barnean berritasun batzuekin. Lehen zatian 1998. urtean zehar EAEa ekonomia eta lan egoeran nola moldatu den azaltzen da, Teknologia, Ikerketa eta Kalitate edo oinarriko Azpiegituraren idazki-zatiak

gehituz. Bigarren zatia biztanleriaren bizi-baldintzak eta bere ongizatearen mailari buruz ari da. Osasun, heziketa, etxebizitza, ingurugiroa, kultura eta kontsumo egoeren ezaguerarekin batera, Emakumearen arazoak eta egoera soziolinguistikoa EAEan eta euskararen egoera ere aztertzen dira. Hirugarren zatian gizarte-babesaren egoera, gizarteko ezberdintasun edo bazterte egoerak eta sortutako gastua ikertzen dira. Azkenik, laugarren zati bat sartzen da UEREkin dauden harremanak eta erkidego kohesioaren eta politika-egiturako, eta Garapenerako kooperaziorako partehartzea deskribatuz. Aurreko memoriaren antzera, idazki-zati hauek urte horretan zehar Eusko Legebiltzarraren lege-jarduera zerrendatu egiten duen eranskin batekin betetzen dira.

Era honetan, memoriak ekonomia eta gizarte esparrutan euskal gizartearen arazo aipagarrienen bateratua, adostua, batea eta hitzartua den hausnarketa tresna bezala duen bere eginkizuna bateratu nahi du.

### **III. KAPITULUA – ERAKUNDE ARTEKO HARREMANAK ETA JARDUERAK**

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak, sortu zenetik, erakunde errepresentazio eta garapen jarduera bizia garatu egin du, bereziki, bere Lehendakariaren eta Idazkari Nagusiaren eskutik.

Halaber, batzordeko langileria teknikoak, bere gehitzetik, hainbat konferentzian, seminario, jardunaldi, kurtso eta hausnarketa foro zenbaitetan parte hartu du.

Guzti hau Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeekiko eta funtzio berdineko beste erakunde eta elkargoekiko beharrezko harremanen barruan kokatzen ahalegindu da. Halaber, lortutako harreman eta elkarrizketa arinak nabarmendu nahi dira: Euskadiko Autonomia Erkidegoko zenbait organoekin, Erakunde Profesionalekin, Unibertsitateekin, Elkargoekin, Enpresekin, eta gizarte interes antolatua errepresentatzen duten eta gizarte eta ekonomia garapenaren ahaleginetan parte hartzen duten beste erakundeekin.

Halaber, eta bere eginkizunen betetzean, Lehendakariak eta Idazkari Nagusiak Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordean errepresentatuak diren organo eta erakunde guztiekin eta bakoitzarekin komunikazio jarduera garatzen dute: sindikatu erakundeak, enpresa erakundeak; merkataritza, industria eta nabigazioko ganberak; aurrezki-kutxak eta finantza erakundeak; kooperatibak; lan-elkarteak; arrantzako, nekazaritzako eta kontsumitzaileen elkargoak eta Euskal Herriko Unibertsitatearekin.

#### **Eusko Jaurlaritza eta Eusko Legebiltzarrarekin harremanak**

Aurreko urteetan bezala, igarotako 1999. urtean zehar, erakunde jarduera bizia izan da Eusko Jaurlaritzako Sailburu jaun gorenekin, Lehendakariordea den Idoia Zenarruzabeitia andre gorenarekin eta Lehendakaria den Juan José Ibarretxe jaun gorenarekin.



Garraio Sailburua den Alvaro Amann jaun gorenak Euskadiko EGABko Batzorde Iraunkorraren aurrean, abenduaren 1ean, eginiko agerpena bereziki nabarmendu behar da.

Halaber, nabaritu behar dira zenbait parlamentariekin izandako bilerak, eta, bereziki, Jaurlaritzako Lehendakaria den Juan María Atutxa jaun gorenarekin. Era berean, azpimarratu behar da Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeko Lehendakari jaun gorenak eta bertako Idazkari Nagusiak 1999ko abenduaren 2an Jaurlaritzan egindako agerraldia. Jaurlaritzak eskaturik bi gaien gaineko informazioa jaulki zen: alde batetik, Euskadiko EGABak egindako Oroitidazki Sozio-ekonomikoa 98ko idazki-zatia, eta garraioaren azpiegiturari buruzkoa; beste aldetik, Euskadiko EGABak emandako 1/99 Irizpenari dagokionez eta "Bidaiarien Garraio Publiko hirian zein hiriz hiri turismoko automobilen Legearen Aurreproiektuari" buruzkoa. Gaiari jarraituz, aurkeztutakoaren punturik aipagarrienek, Euskadiko Autonomia Erkidegoarengan dagoen ardura falta erakutsi zuten, fondo-kohesioaren aldetik –Barne Administrazioak banatzen duen bere jadanekotasun denboraldi guztian. Eta, Irizpenari dagokionez, Euskadiko EGABak defendatutako filosofiari ekin zion, Lege proiektuak aurkezten zuen izaera germinalista kentzeko.

#### **IV. KAPITULUA - TRESNA ETA PERTSONA BALIABIDEEN KUDEAKETA**

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak, bere xedeak betetzeko, Euskadiko Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Nagusietan horretarako idatziz jasotzen duten baliabide ekonomikoak ditu, eta 1999. urtean zehar beharrezko zerbitzu administratibo eta teknikoez hornitu egin da, baliabide horiek egoki kudeatzeko.

#### **AURREKONTUA 1999**

Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeko Gastuen Aurrekontuak 1999. urterako 250 milioi pezetako diru-kopurua zuen, oso-osoan EAeko Aurrekontu Nagusiaren kargura finantzaturik.

Jarraian 1999. urteko Aurrekontua nola geratu zen aurkezten da. Bertan %60 inguruko exekuzio maila 1999. urtean zehar Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen ohizko jarduera mugatua izan zelako da, lege-jarduera murriztuagatik.

1999. urterako Aurrekontua hurrengo kapitulu handitan banatzen da:

	AURREKONTUA	GAUZATUA	GRADUA
<b>GASTUAK 1999</b>	<b>250.000.000</b>	<b>139.928.102</b>	<b>55,85%</b>
I. KAPITULUA- LANGILE GASTUAK	83.5450.000	69.753.249	
II. KAPITULUA- FUNTZIONAMENDU GASTUAK	91.160.000	33.710.942	
III. KAPITULUA- FINANTZA GASTUAK	100.000	0	
IV. KAPITULUA- GASTU ARRUNTEN TRANSF. ETA SUB.AK. Partaideei eginiko transferentziak	43.200.000	30.153.253	
VI. KAPITULUA- INBERTSIOAK	32.000.000	6.010.658	
<b>SARRERAK 1999</b>	<b>250.000.000</b>	<b>87.344.382</b>	<b>34,94%</b>
EUSKO JAURLARITZA	250.000.000	80.000.000	
FINANTZA SARRERAK	0	7.344.382	

OHARRA: Eusko Jaurlaritzatik jasotako diru-sarera, 80.000.000 pezetakoa, izaera finalista du "Euskadiko EGABren egoitza berriaren Egokitzapena eta Antolatzea". 1999. urterako Aurrekontu Gastuaren gauzatzea aurreko ekitaldien soberakin egin da.

## TRESNA BALIABIDEEN KUDEAKETA

1999. urteko azken hiruhilabetez zehar, eta batzordeko Egoitzaren kokapenaren aldaketaren beharrezkoan aurrean, Bilbon Egoitza ezartzeko egin zitezkeen kokapen ezberdinen gaineko hainbat ikerketa eta azterketak egin ziren, eta Euskadiko EGABk Sortze-Legean ezarritakoari jarraitu zitzaion.

Zenbait lokal bisitatu eta haien kokapena eta baldintzak ikuskatu, eta Batzorde Iraunkorarekin hitz egin eta gero, Euskadiko EGABren beharrezko egokienak ziren instalazioak Bilboko Gran Vía, 35 – 1. solairuan kokaturik daudenak zirela erabaki zen. 1999ko abenduan errentamendu-kontratuko sinadura egin zen eta 1999ko azken asteetan zehar beharrezko lekualdaketa ekin zitzaion.

## EUSKADIKO EGAB-KO PARTAIDEEN ETA KARGUEN BERRITZEA

Batzordeko partaideen lau urteko agintzea amaitzen denean, eta Consejo Económico y Social Vasco/Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen 9/1997 Legeak eta batzordeko Funtzionamendu Legediak ezarritako aurreikuspenekin bat etorriaz, 1999ko urriko hilabetez batzordeko partaideen berritze-prozesuari hasiera eman zitzaion. Horretarako, Eusko Jaurlaritzako Lan Sailari ziurtagiri baten bidalketa eskatu zitzaion. Ziurtagiri horretan adierazten da nola sindikatu erakundeak, urriaren 31ko sindikatu hauteskunderako emaitzetan oinarrituz, eta nola erakunde ezberdinak – legalki Euskadiko EGABn errepresentaturik egoteko egiazkotasuna onartu egiten zaie, dagokien partaideen izendapenak lantzeko eta aurkezteko- errepresentatuak dira.

1999ko abenduko datan, ez dira beharrezko izendapen guztiak jaso. Prozesua 2000. urtean jarraituko da.

## **V. KAPITULUA- EUSKADIKO EKONOMIA ETA GIZARTE ARAZOETARAKO BATZORDEARI EZAR DAKIOKEEN LEGEDIA**

Euskadiko Autonomia, Estatutuaren 3/1979 abenduak 18, LEGE ORGANIKOA. EAA, 306. zk. 1979ko abenduaren 22koa. EHAA, 32. zk., 1980ko urtarrilaren 12koa.

9/1997 LEGEA, ekainaren 27koa, Consejo Económico y Social Vasco – Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeari buruzkoa. EHAA, 141. zk., 1997ko uztailaren 24koa.

Osoko Bilkuraren ERABAKIA, 1997ko abenduaren 18koa, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetako Batzordearen funtzionamendu-araudia onartzeko dena. EHAA, 10. zk., 1998ko urtarrilaren 16koa.

341/1995 DEKRETUA, ekainaren 27koa, Consejo Económico y Social Vasco-Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeko kideak izendatu eta batzordearen atariko bilkura deitzen duena. EHAA, 132. zk., 1995ko uztailaren 12koa.

341/1995 DEKRETUA, ekainaren 27koa, Consejo Económico y Social Vasco-Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen atariko bilkura deitzen duena. (Hutsen zuzenketa). EHAA, 157. zk., 1995ko abuztuaren 18koa.

439/1995 DEKRETUA, urriaren 9koa, Consejo Económico y Social Vasco-Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeko adituak izendatu eta batzordea eratzeko bilkurara deitzen duena. EHAA, 195. zk., 1995ko urriaren 11koa.

445/1995 DEKRETUA, urriaren 26koa, Consejo Económico y Social Vasco-Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeko lehendakaria izendatzen duena. EHAA, 208. zk., 1995ko urriaren 31koa.

1/1996 DEKRETUA, otsailaren 12koa, Lehendakariarena, Consejo Económico y Social Vasco-Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeko kide bat berritzeko dena. EHAA, 45. zk., 1996ko martxoaren 4koa.

2/1996 DEKRETUA, martxoaren 19koa, Lehendakariarena, Consejo Económico y Social Vasco-Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeko zenbait kide berritzen dituen. EHAA, 86. zk., 1996ko maiatzaren 7koa.

4/1998 DEKRETUA, ekainaren 17koa, Lehendakariarena, Consejo Económico y Social Vasco-Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeko kide bat berritzen duena. EHAA, 128. zk., 1998ko uztailaren 9koa.

13/1998 DEKRETUA, uztailaren 29koa, Lehendakariarena, Consejo Económico y Social Vasco-Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeko zenbait kide aldatzeko. EHAA, 158. zk., 1998ko abuztuaren 21koa.

13/1999 DEKRETUA, urtarrilaren 21koa, Lehendakariarena, Consejo Económico y Social Vasco-Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeko zenbait kide aldatzeko. EHAA, 24. zk., 1999ko otsailaren 4koa.

## **ERANSKINAK**

### I. ERANSKINA

- Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Osoko Bilkuraren osaketa
- Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Komisioaren osaketa

### II. ERANSKINA

- Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeko Osoko Bilkurak 1999. urtean egindako bilkurak
- Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeko Batzorde Iraunkorrak 1999, urtean egindako bilkurak
- Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeko Lan-Batzordeak 1999. urtean egindako bilkurak

### III. ERANSKINA

- Auditoretza txostena

## I. ERANSKINA

- EUSKADIKO EGAB-EKO OSOKO BILKURAREN OSAKETA
- EUSKADIKO EGAB-EKO BATZORDE IRAUNKORRAREN OSAKETA
- EUSKADIKO EGAB-EKO LAN-BATZORDEEN OSAKETA

## **EUSKADIKO EKONOMIA ETA GIZARTE ARAZOETARAKO BATZORDERAKO OSOKO BILKURAREN OSAKETA**

### **Lehendakaria**

FCO. JAVIER MONGELOS OQUIÑENA

### **Idazkari Nagusia**

FCO. JAVIER HERNANDEZ BILBAO

### **a) TALDEA betetzen duten sailburuak – Sindikatu Konfederazioek edo Erakundeek izendatuak:**

*Eusko Langileen Alkartasuna – Solidaridad de Trabajadores Vascos – ELA/STV sindikatuak proposatua:*

Kide titularrak

MIKEL NOVAL FERNÁNDEZ  
JUAN MIGUEL MENDOZA AIZPURU  
GERMÁN KORTABARRIA IGARTUA  
JUAN OLASKOAGA ITURRI (\*)

Ordezko kideak

BIXENTE HARRIOLA ALBIZU  
IÑIGO SAGARNA ODRIUZOLA  
JON ANDER LLABORI ZEARRA  
BEGOÑA DIEZ DE ULZURRUN ITURRALDE

*Unión General de Trabajadores de Euskadi – UGT sindikatuak proposatua:*

Kide titularrak

FÉLIX PÉREZ CARRASCO  
FRANCISCO SANCHO LLERANDI

Ordezko Kideak

MARIBEL BALLESTEROS MARTÍNEZ  
RAÚL ARZA VÉLEZ

*Confederación Sindical de Comisiones Obreras de Euskadi – CC.OO sindikatuak proposatua:*

Kide titularra

LUIS MIGUEL PARIZA CASTAÑOS

Ordezko kidea

TOMÁS ARRIBAS DE GREGORIO

*Langile Abertzaleen Batzordeak – LAB sindikatuak proposatua:*

Kide titularra

RAFAEL IZQUIERDO SANCHEZ

Ordezko kidea

DOMINGO LORCA ALCALA

**b) TALDEA betetzen duten sailburuak – Confederación Empresarial Vasca – Confebask erakundeak izendatuak:**

Kide titularrak

RAFAEL PUNTONET DEL RÍO  
FELICÍSIMO AYASTUY SANZ  
JOSÉ MARÍA PÉREZ AGUEDA  
JOSÉ MARÍA RUIZ URCHEGUI  
FCO. JAVIER AZPIAZU LASUEN  
JAIME FERNÁNDEZ ALCEDO  
JOSÉ GUILLERMO ZUBIA GUINEA  
MIGUEL ANGEL PORRAS

Ordezko kideak

EDUARDO ARECHAGA CILLERUELO  
JON BILBAO SARALEGUI  
MIKEL ORBEGOZO LABORDE  
JUAN JOSÉ EUGUI EUGUI  
PABLO GIL ROA  
IGNACIO SÁEZ DE GORBEA  
ALFONSO SAIZ GALLEGO  
JESÚS MARÍA ZÁRATE OCHOA DE RETANA

**c) TALDEA betetzen duten sailburuak – Autonomia Erkidegoko honako sektore, erakunde, entitate eta elkarte hauetako bakoitzak izendatuak:**

*Merkataritza, industria eta nabigazioko ganberek:*

Kide titularra

PATRICIO DE LA SOTA MAC MAHON

Ordezko kidea

JAVIER URÍA ECHEBARRIA

*Aurrezki-kutxek eta finantza erakundeek:*

Kide titularra

FERNANDO SPAGNOLO DE LA TORRE

Ordezko kidea

PEDRO MARTÍNEZ DE ALEGRÍA PINEDO

*Kooperatibek:*

Kide titularra

FCO. JAVIER SANZ SANTAOLALLA

Ordezko kidea

JAVIER SALABERRIA AMESTI

*Akziokako lan-baltzuek:*

Kide titularra

JOSÉ HERNÁNDEZ DUÑABEITIA

Ordezko kidea

JAVIER MUÑECAS HERRERAS

*Arrantzako elkargoek:*

Kide titularra

ESTEBAN OLAIZOLA ELIZAZU

Ordezko kidea

MIREN GARMENDIA CEBERIO

*Nekazaritzako elkargoek:*

Kide titularra



JESÚS MANUEL MARAÑÓN URIARTE

Ordezko kidea

ALFREDO MONTOYA ESTIBALEZ

*Kontsumitzaileen elkargoek:*

Kide titularra

CELINA MENAZA ECENARRO

Ordezko kidea

ARANTZA LASKURAIN ARTETXE

*Euskal Herriko Unibertsitateak:*

Kide titularra

ALFONSO PÉREZ-AGOTE PÓVEDA

Ordezko kidea

M<sup>a</sup> CARMEN GALLASTEGUI ZULAICA

**d) TALDEA betetzen duten sailburuak – Adituak:**

MARTÍN AUZMENDI AIERBE  
KOLDO GOROSTIAGA ATXALANDABASO  
FELIPE SERRANO PÉREZ  
ALFONSO BASAGOITI ZABALA  
LUCIO DELGADO IRAZOLA  
FERNANDO GÓMEZ BEZARES  
M<sup>a</sup> CARMEN GALLASTEGUI ZULAICA  
Zortzigarren partaidearen izendapenaren zain (\*)

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeko partaideen izendapenak 1995. urtean egin ziren:

- Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeko a), b) eta c) taldeetako partaideak ekainaren 27ko 341/1995 Dekretuak, EHAA, 132. zk., 1995eko uztailaren 12koak – Hutsen zuzenketa EHAA, 157. zk., 1995ko abuztuaren 18koak, dioenarekin arabera izendatuak izan dira.
- Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetako Batzordeko adituen taldeko partaideak urriaren 9ko 439 Dekretuak, EHAA, 195. zk., 1995eko urriaren 11koak, dioenaren arabera izendatuak izan dira.

- Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeko Lehendakaria urriaren 26ko 445/1995 Dekretuak, EHAA, 208. zk., 1995eko urriaren 31koak, diosenaren arabera izendatua izan zen.
- Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeko Idazkari Nagusia 1995eko urriaren 11n Batzordeko Osoko Bilkuraren Erabakiak izendatu zuen.

1996. urtean zehar hurrengo ordezkapenak egin ziren:

- Otsailaren 12ko 1/1996 Dekretuak , EHAA, 45. zk., 1996ko martxoaren 4koak, diosenaren arabera, Felícisimo Ayastuy Saenz jaunak Javier Hernández Bilbao jauna ordezkatzeko du Confederación Empresarial Vasca – Confebask erakundeko ordezkari legez.
- Martxoaren 19ko 2/1996 Dekretuak, EHAA, 86. zk., 1996ko maiatzaren 7koak, diosenaren arabera, Estaban Olaizola Elizazu jauna eta Miren Garmendia Ceberio andreak, Juan María Urbieta Burgaña jauna eta Antonio Garai Gabancho jauna ordezkatzeko dute, hurrenez hurren, kide titularra eta ordezkari kide postuetan, Arrantzako elkargoen ordezkari legez.

1998. urtean zehar hurrengo ordezkapenak egin ziren:

- Uztailaren 17ko 4/1998 Dekretuak, EHAA, 128. zk., 1998ko uztailaren 9koak, diosenaren arabera, Javier Salaberria Amesti jaunak Alfonso Gorroñogitia González jauna ordezkatzeko du, Euskadiko Kooperatiben elkargoen ordezkari legez.
- Uztailaren 29ko 13/1998 Dekretuak, EHAA, 158. zk., 1998ko abuztuaren 21ekoak, diosenaren arabera, Javier Uria Echebarria jaunak Angel Garay Bilbao jauna ordezkatzeko du, Merkataritza, industria eta nabigazio ganberako ordezkari legez.
- Uztailaren 29ko 13/1998 Dekretuak, EHAA, 158. zk., 1998ko abuztuaren 21ekoak, diosenaren arabera, Iñigo Sagarna Odriozola jauna eta Begoña Díez de Ulzurrun Iturralde andreak, Amaia Aldasoro Iturbe andrea eta Cristina Arenal Sánchez andrea ordezkatzeko dituzte, hurrenez hurren, Agrupación Sindical Eusko Langileen Alkartasuna/Solidaridad de Trabajadores Vascos – ELA-STV sindikatuko ordezkari legez.
- Urtarrilaren 21eko 13/1999 Dekretuak, EHAA, 24. Zk., 1999ko otsailaren 4koak, diosenaren arabera, Rafael Izquierdo Sánchez jaunak eta Domingo Lorca Alcalá jaunak, José Luis Rezabal Zurutuza jauna eta Francisco Cereceda Garayo jauna ordezkatzeko dituzte, hurrenez hurren, Agrupación Sindical Langile Abertzaleen Batzordea – LAB sindikatuko ordezkari legez.

(\*) Gogoan izan behar dugu 1998ko irailaren 29an hil egin zen Alberto Abad González jauna, batzordea sortu zenetik Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeko Adituen taldeko partaidea izan zena.

Gogoan izan behar dugu 1999ko abuztuaren 8an hil egin zen Juan Olaskoaga Iturri jauna, batzordea sortu zenetik "Sindikatu konfederazio eta erakundeak" a) taldeko - Agrupación Sindical Eusko Langileen Alkartasuna/Solidaridad de Trabajadores Vascos - ELA/STV sindikatuko- partaidea izan zena.

## EUSKADIKO EKONOMIA ETA GIZARTE ARAZOETARAKO BATZORDEKO PARTAIDEAK

### BATZORDE IRAUNKORRA

#### **Lehendakaria**

JAVIER MONGELOS OQUIÑENA

#### **Idazkari Nagusia**

JAVIER HERNANDEZ BILBAO

#### **a) TALDEA –Sindikatu konfederazioek edo erakundeek izendatuak:**

Kide titularrak

Ordezko kideak

MIKEL NOVAL FERNÁNDEZ  
FELIX PÉREZ CARRASCO  
LUIS MIGUEL PARIZA CASTAÑOS  
JOSÉ LUIS REZABAL ZURUTUZA

GERMÁN KORTABARRIA IGARTUA  
MARIBEL BALLESTEROS MARTÍNEZ  
TOMÁS ARRIBAS GREGORIO  
FRANCISCO CERECEDA GARAYO

#### **b) TALDEA – Confederación Empresarial Vasca – Confebask erakundeak aukeratuak:**

Kide titularrak

Ordezko kideak

RAFAEL PUNTONET DEL RÍO  
FELICISIMO AYASTUY SAENZ

JON BILBAO SARALEGUI  
JESÚS ZÁRATE OCHOA DE RETANA

#### **c) TALDEA – Autonomia Erkidegoko sektore, erakunde, entitate, elkarte bakoitzak aukeratuak:**

Kide titularrak

Ordezko kideak

FCO. JAVIER SANZ SANTAOLALLA  
PEDRO MNEZ. DE ALEGRÍA PINEDO

JESÚS M<sup>a</sup> MARAÑÓN URIARTE  
ALFONSO PÉREZ-AGOTE PÓVEDA

#### **d) TALDEA – Adituak:**

Kide titularrak

Ordezko titularrak

M<sup>a</sup> CARMEN GALLASTEGUI ZULAICA  
MARTÍN AUZMENDI AIERBE

FELIPE SERRANO PÉREZ  
FERNANDO GOMEZ-BEZAREZ

---

**EKONOMIA GARAPENAREN AZTERKETA EGITEKO BATZORDEA**

---

**Lehendakaria**

JAVIER MONGELOS OQUIÑENA

**a) TALDEA – Sindikatu konfederazioek edo erakundeek aukeratuak:**

JON A. LLABORI ZEARRA  
FRANCISCO SANCHO LLERANDI  
LUIS MIGUEL PARIZA CASTAÑOS  
JOSÉ LUIS REZABAL ZURUTUZA

**b) TALDEA – Confederación Empresarial Vasca – Confebask erakundeak aukeratuak:**

EDUARDO ARÉCHAGA CILLERUELO  
JUAN JOSÉ EUGUI EUGUI  
RAFAEL PUNTONET DEL RÍO

**c) TALDEA – Autonomia Erkidegoko sektore, erakunde, entitate, elkarte bakoitzak aukeratuak:**

JESÚS M<sup>a</sup> MARAÑÓN URIARTE  
MIREN GARMENDIA CEBERIO  
PEDRO MARTINEZ DE ALEGRÍA PINEDO

**d) TALDEA – Adituak:**

FELIPE SERRANO PÉREZ  
LUCIO DELGADO IRAZOLA

**Batzordeko Idazkari Teknikoak:**

ARANZAZU LOPEZ DE MUNAIN ZULUETA  
FCO. JAVIER SASIGAIN SAEZ DE BURUAGA

---

**GIZARTE GARAPENAREN AZTERKETA EGITEKO BATZORDEA**

---

**Lehendakaria**

JAVIER HERNANDEZ BILBAO

**a) TALDEA – Sindikatu konfederazio edo erakundeek aukeratuak:**

BIXENTE ARRIOLA ALBIZU  
RAUL ARZA VELEZ  
LUIS MIGUEL PARIZA CASTAÑOS  
JOSÉ LUIS REZABAL ZURUTUZA

**b) TALDEA – Confederación Empresarial Vasca – Confebask erakundeak aukeratuak:**

RAFAEL PUNTONET DEL RÍO  
PABLO GIL ROA

**c) TALDEA – Autonomia Erkidegoko sektore, erakunde, entitate, elkarte bakoitzak aukeratuak:**

JOSÉ HERNÁNDEZ DUÑABEITIA  
CELINA MENAZA ECENARRO

**d) TALDEA – Adituak:**

KOLDO GOROSTIAGA ATXALANDABASO

**Batzordeko Idazkari Teknikoak:**

AGURTZANE PEÑA AGUIRREGABIRIA  
ARANTZA LOPEZ DE MUNAIN ZULUETA

---

---

**OROITIDAZKI SOZIO-EKONOMIKOA EGITEKO BATZORDEA**

---

---

**Lehendakaria**

MARTIN AUZMENDI AIERBE

**a) TALDEA – Sindikatu konfederazioek edo erakundeek aukeratuak:**

MIKEL NOVAL FERNÁNDEZ  
FELIX PÉREZ CARRASCO  
LUIS MIGUEL PARIZA CASTAÑOS  
JOSÉ LUIS REZABAL ZURUTUZA

**b) TALDEA – Confederación Empresarial Vasca – Confebask erakundeak aukeratuak:**

RAFAEL PUNTONET DEL RÍO  
JAIME FERNÁNDEZ ALCEDO  
EDUARDO ARÉCHAGA CILLERUELO

**c) TALDEA – Autonomia Erkidegoko sektore, erakunde, entitate, elkarte bakoitzak aukeratuak:**

ALFONSO PÉREZ-AGOTE PÓVEDA  
PATRICK DE LA SOTA Y MAC MAHON  
JOSÉ HERNÁNDEZ DUÑABEITIA

**d) TALDEA – Adituak:**

ALFONSO BASAGOITI ZABALA  
FERNANDO GÓMEZ BEZAREZ

**Batzordeko Idazkari Teknikoa:**

FCO. JAVIER SASIGAIN SAENZ DE BURUAGA

## II. ERANSKINA

- EUSKADIKO EGAB-EKO OSOKO BILKURAK EGINDAKO BILKURAK
- EUSKADIKO EGAB-EKO BATZORDE IRAUNKORRAK EGINDAKO BILKURAK
- EUSKADIKO EGAB-EKO LAN-BATZORDEAK EGINDAKO BILKURAK

## **EUSKADIKO EKONOMIA ETA GIZARTE ARAZOETARAKO BATZORDEKO OSOKO BILKURAK EGINDAKO BILKURAK**

### *1999ko martxoaren 3an*

---

- ✓ 1999. urterako Aurrekontuen onestea.
- ✓ Enpresa auditore eta independente baten zerbitzuak kontratatzeko hitzarmena, 1998ko eta 1999ko finantza-ekitaldien egoerak ikertzeko.

### *1999ko apirilaren 21ean*

---

- ✓ 1998. urteko ekitaldiko Dirubidezko Txostenei buruzko Auditoretza Txostenaren onestea.
- ✓ 1998. urteko ekitaldiko Euskadiko EGABren Jardueren Memoriaren onestea.

### *1999ko uztailaren 14an*

---

- ✓ 1998. urteko EAEko Oroitidazki Sozio-ekonomikoaren onestea, guztien adostasunez.
- ✓ "Lan jarduera uzten duten 60 urtetik gorako langileentzako, eta lan jarduera utzi zein erretiro partziala – txandakako kontratua duten gutxietsitako taldeen kontratazio zehaztugabeentzako neurriak erregulatzen dituen Dekretu Proiektuari" buruzko Irizpena ez jaulkitzeko hitzarmena.

### *1999ko urriaren 13an*

---

- ✓ "Bidaiaria garraio publiko hirian zein hiriz hiri turismoko automobiletan bidaiatzeko Legearen Aurreproiektuaren" 1/99 Dekretuaren onestea.

### *1999ko abenduaren 17an*

---

- ✓ 2000. urterako Aurrekontuen onartzea.
- ✓ Euskadiko EGABren Baltzu-Egoitza berari buruzko informazioa.
- ✓ Euskadiko EGABko partaideen berritze-prozesuari buruzko informazioa.



## **EUSKADIKO EKONOMIA ETA GIZARTE ARAZOETARAKO BATZORDEKO BATZORDE IRAUNKORRAK EGINDAKO BILKURAK**

### *1999ko urtarrilaren 22an*

---

- ✓ Enpresa auditore bat kontratatzeko hitzarmena, 1998ko Euskadiko EGABko Dirubidezko Txostenak ikertzeko.

### *1999ko otsailaren 10ean*

---

- ✓ Batzordeko partaideen ordezkapenari buruzko informazioa.
- ✓ Euskadiko EGABaren Norberaren Ekimenari buruzko txostenen gauzatzearen eztabaida.

### *1999ko martxoaren 3an*

---

- ✓ 1998. urteko EAEko Oroitidazki Sozio-ekonomikoaren egiteari buruzko informazioa.
- ✓ 1997. urteko EAEko Oroitidazki Sozio-ekonomikoaren argitalpena eta banaketari buruzko informazioa.

### *1999ko martxoaren 17an*

---

- ✓ 1998. urteko Euskadiko EGABeko Dirubidezko Txostenei buruzko Auditoretza Txostenaren onartzea.
- ✓ 1998. urterako Euskadiko EGABren Jardueren Memoriaren onartzea.

### *1999ko ekainaren 18an*

---

- ✓ Batzordeko Egoitzaren bulegoei buruzko informazioa.
- ✓ Euskadiko EGABak Berezko Ekimenezko txostenak ez jaulkitzeko hitzarmena.
- ✓ Euskadiko EGABko langileri teknikoko partaide bat, borondatezko baja hartu duena, ordezkatuko duen pertsona hautatuko duen ezarritako enpresaren onestea.

### *1999ko uztailaren 2an*

---

- ✓ Euskadiko EGABko Egoitzaren bulego berrien gaineko informazioa.

### *1999ko uztailaren 28an*

---

- ✓ Harreman Publiko, Dokumentazio eta Itzulpen arduradun berriaren kontratazioaren onestea.

### *1999ko urriaren 5ean*

---

- ✓ CCOO sindikatuak Euskadiko EGABak "Ekonomia hitzarmena, gure autogobernu sistemaren oinarritzko euskarria, eta Estatu Espainolean eta

Europa Erkidegoan beharrezkoa den bateratze-fiskalari” buruzko norberaren ekimenezko Irizpen bat jaulkitzea proposatzen du.

- ✓ Batzordeko egoitzaren kokapen berriaren gaineko informazioa.
- ✓ 2000. urterako Aurrekontuaren Aurreproiektua egiteko proposamena.
- ✓ Batzordeko partaideen berritzearen prozesuaren gaineko informazioa.

#### *1999ko urriaren 22an*

---

- ✓ “Ekonomia hitzarmena, gure autogobernu sistemaren oinarritzko euskarria, eta Estatu Espainolean eta Europa Erkidegoan beharrezkoa den bateratze-fiskalari” buruzko norberaren ekimenezko Irizpena ez jaulkitzeko hitzarmena.
- ✓ “Ekainaren 24ko 4/1993 Legea, Euskadiko Kooperatibena, aldatzeko Lege Aurreproiektuari” buruzko Irizpenaren gaineko eztabaida.

#### *1999ko abenduaren 1ean*

---

- ✓ Eusko Jaurlaritzako Garraio eta Herri Laneko sailburuko jaun gorenaren aurkezpena, Euskadiko EGABri “ EAEko Komunikazio Azpiegituren egoera eta ikuspegia. Eusko trenbide-sistemaren” gaineko informazioa.
- ✓ 2000. urteko Aurrekontuaren proiektuaren onestea.
- ✓ Batzordeko barruko Irizpen eta txostenen zabaltze-prozesuaren gaineko txostena.

## **EUSKADIKO EKONOMIA ETA GIZARTE ARAZOETARAKO BATZORDEKO LAN-BATZORDEEN JARDUERAK 1999. URTEAN**

### **EKONOMIA GARAPENERAKO BATZORDEA**

*1999ko irailaren 17an*

---

- ✓ Batzordeko Lehendakariaren eta Idazkari Teknikoaren izendapena egiten da.
- ✓ “Bidaiarien Garraio Publiko hirian zein hiriz hiri turismoko automobiletan bidaiatzeko Legearen Aurreproiektuaren” irizpen aurreproiektua, Eusko Jaurlaritzako Garraio eta Herri Laneko sailak bidalitakoa, egiteko txostengilea aukeratu egiten da. Beraz, Felipe Serrano Pérez jauna, d) taldeko Adituak kidea dena, aukeratua izan da.
- ✓ Esandako Irizpena gauzatzeko lan-egutegia eztabaidatu eta onetsi egiten da.

*1999ko irailaren 24an*

---

- ✓ Txostengileak “Bidaiarien Garraio Publiko hirian zein hiriz hiri turismoko automobiletan bidaiatzeko Legearen Aurreproiektuaren” Irizpen Aurreproiektua aurkezten du.
- ✓ Aurreproiektuari buruzko eztabaida egiten da.

*1999ko urriaren 5ean*

---

- ✓ “Bidaiarien Garraio Publiko hirian zein hiriz hiri turismoko automobiletan bidaiatzeko Legearen Aurreproiektuaren” Irizpen Aurreproiektuaren gainean aurretik eskatutako aldaketak eztabaidatzen dira.
- ✓ Bozketaren ondorioz, 1/99 Irizpen Proiektua onetsi egiten da.

### **GIZARTE GARAPENERAKO BATZORDEA**

*1999ko ekainaren 16an*

---

- ✓ Batzordeko Lehendakariaren eta Idazkari Teknikoaren izendapena egiten da.
- ✓ Eusko Jaurlaritzak bidalitako “Lan jarduera uzten duten 60 urtetik gorako langileentzako, eta lan jarduera hori utzi zein erretiro partziala – txandakako kontratua duten gutxietsitako taldeen kontratazio zehaztugabeentzako neurriak erregulatzen dituen Dekretu Proiektua” aurkezten da.
- ✓ Euskadiko EGABeko zerbitzu teknikoek egindako aurretiko txostena aurkezten da. Bertan aipatutako Dekretu Proiektuari EGABeko partaideek adierazitako proposamenak eta iritziak batzen dira.
- ✓ Eztabaidaren ondorioz, Herri Garapenerako batzordea Dekretu Proiektuaren gaineko irizpen bat emateko ados jartzen ez dela zehazten da eta batzordearen Osoko Bilkurari ados jarritakoa bidali egiten zaio.

---

*1999ko ekainaren 30ean*

---

- ✓ Aurreko bilkuran hartutako erabakia berretsi egiten da.
- ✓ Eusko Jaurlaritzak bidalitako "2000. urteko Euskadiko Autonomia Erkidegoko Lan-egutegia ofizialeko jaiak onesten diren Dekretu Proiektua" aurkezten da.
- ✓ Hurrengo Osoko Bilkurara, kasu bakoitzean, egokiak diren ikerketak eta eztabaidak bidaltzeko erabaki hartzen da

---

*1999ko irailaren 24an*

---

- ✓ Batzordearen Lehendakaria eta Idazkari Teknikoa aukeratzen dira.
- ✓ Txostengilea aukeratu egiten da "Ekainaren 24ko 4/1993 Legea, Euskadiko Kooperatibena, aldatzeko Lege Aurreproiektuari" buruzko aurreproiektu irizpena egiteko. Txostengilea, d) taldea, Adituak partaidea den Fernando Gómez-Bezares da.
- ✓ Aipaturiko Irizpenaren garapena egiteko, Lan-egutegia eztabaidatu eta onetsi egiten da.

---

*1999ko urriaren 6an*

---

- ✓ Txostengileak "Ekainaren 24ko 4/1993 Legea, Euskadiko Kooperatibena, aldatzeko Lege Aurreproiektuaren" Irizpen Aurreproiektua aurkezten du.
- ✓ Aurreproiektua eztabaidatu egiten da.

---

*1999ko urriaren 13an*

---

- ✓ "Ekainaren 24ko 4/1993 Legea, Euskadiko Kooperatibena, aldatzeko Lege Aurreproiektuaren " Irizpen Aurreproiektuaren gainean aurkeztutako aldaketak eztabaidatzen dira.
- ✓ Aipatutako Aurreproiektuaren Irizpen proiektua emateko beharrezkoa den gehiengoaren biltzea ezinezkotzat ematen da.

## **OROITIDAZKI SOZIO-EKONOMIKORAKO BATZORDEA**

---

*1999ko otsailaren 12an*

---

- ✓ Oroitidazki Sozio-ekonomikoa lantzeko lan-egutegia eta lagungarri den aurkibidea eztabaidatu eta onetsi egiten da.

---

*1999ko martxoaren 24an*

---

- ✓ Memorian dauden atal batzuen azterketa egiteko azpikontratatzeko beharra proposatzen da.
- ✓ Lan-egutegi berria eztabaidatu eta onetsi egiten da.

---

*1999ko maiatzaren 5ean*

---

- ✓ 1998. urteko Oroitidazki Sozio-ekonomikoaren lehen zirriborroa eztabaidatu eta ikertu egiten da.

---

*1999ko ekainaren 2an*

---

- ✓ Aurreko agiriari buruzko iradokizun ezberdinak ikertu egiten dira.
- ✓ Memorian bildutako zenbait kapitulu eztabaidatu eta ikertu egiten dira.

---

*1999ko ekainaren 11an*

---

- ✓ Iradokizun ezberdinak ikertu egiten dira, eta "Laburpenak eta Ondorioak" kapituluaren nabarmendu egiten da.
- ✓ "Iritziak" kapituluaren garatu egiten da.
- ✓ 1998. urteko oroitidazki sozio-ekonomikoaren aurreproiektua onetsi egiten da.
- ✓ Aurreproiektuak izan ditzakeen zuzenketei buruzko eztabaida egiteko, Osoko Bilkura egin aurretik bilera egiteko erabakia hartzen da.

---

*1999ko uztailaren 2an*

---

- ✓ Jasotako zuzenketa guztiak eztabaidatu eta ikertu egiten dira.
- ✓ Batzordeak bere gain hartutako zuzenketen bilduma, memoriaren onestea Osoko Bilkuran aurkezteko erabakia hartzen da.

### III. ERANSKINA

- 1999KO EKONOMIA EKITALDIAREN AUDITORETZA TXOSTENA

GOMEZ-BILBAO AUDITORES CJC, S.L., Espainiako Zinpeko Kontu-auditoreen eta Zentsoreen erakundearen Erregistro Berezian 23. zenbakia, eta Kontabilitate eta Kontu-auditoretzaren erakundeko Kontu-auditoreen erregistro ofizialeko S0204 zenbakia duenak, bere bulegoa Diputazio kalea, 1ean duenak, zera jaulkitzen du

### AUDITORETZA TXOSTENA

1. CONSEJO ECONOMICO Y SOCIAL VASCO/EUSKADIKO EKONOMIA ETA GIZARTE ARAZOETARAKO BATZORDEA erakundearen Aurrekontuaren kitapenari, 1999ko urteari dagokionari, eta erakunde horren 1999ko abenduaren 31n itxitako balantze egoerari eta galeren eta irabazien zenbaketari, auditoretza egin diogu. Gure eginkizuna aipatutako dirubidezko txostenen gaineko iritzia ematea da, normalean onetsitako auditoretza arauak diotenarekin egindako lanean oinarrituz. Arauek, egiten diren selekzio frogen bitartez, hauen justifikazio ebidentziaren azterketa, eta bere aurkezpenaren, aplikatutako kontabilitatezko printzipioen eta egindako kalkuluen ebaluazioa eskatzen dute.
2. Aurrekontuaren likidazioaren agiriekin, balantze egoerarekin, eta galera eta irabazien zenbaketa bakoitzarekin batera, 1999ko ekitaldiko eta aurreko ekitaldiko kopuruak aurkezten ditugu. Gure iritzia, bereziki 1999ko dirubidezko txostenari dagokio. 1999ko martxoaren 12an, 1998ko ekitaldiko aipaturiko dirubidezko txostenari buruzko auditoretza txostena jaulkitzen dugu, eta aldeko iritzia adierazten dugu.
3. 1999ko ekitaldian zehar, batzordeak ezin izan ditu bere eginkizunak oso-osoan bete. Beraz, ekitaldi honetarako Eusko Jaurlaritzak emandako kontuen esleipena ez da erabili. Dena den, izaiki horretatik 80.000.000 pezetako kopurua jaso da, herri baltzu-egoitza berria – 2000. urterako espero dena- egokitzeko beharrezko inbertsioa finantzatzeko. Egin behar den inbertsioaren aurrekontua, 80.000.000 pezetakoa, Balantze Egoeran agertzen da, “Arrisku eta Gastuen Hornidura” atalean, “Aldiak egitearen adostasunak” idazpurua duen kontrakontuarekin.
4. Gure iritiz, batera datorren 1999. Urteko ekitaldiko Aurrekontuaren likidazioak, aipatutako ekitaldiko CONSEJO ECONOMICO Y SOCIAL VASCO/EUSKADIKO EKONOMIA ETA GIZARTE ARAZOETARAKO BATZORDEA entitatearen ekonomia jardura –aurrekontu irizpideen arabera- egoki aurkezten du. Batera datozen balantze egoerak, eta galera eta irabazi zenbaketek, 1999. Urtekoek, ondarearen irudi fidela eta 1999ko abenduaren 31n entitate horren, bere lanen emaitzen, eta lortutako eta ezarritako baliabideen finantza egoera isladatzen dute. Baliabide hauek, oro har onetsitako kontabilitatezko printzipio eta arauekin, aurreko ekitaldian ezarritako berdinarekin, bat datoz.

GOMEZ-BILBAO AUDITORES CJC, S.L.

Sinadura: Javier Angulo Gómez

Bilbon, 2000ko otsailaren 1ean

*(Gomez-Bilbao Auditores CJC, SL. enpresak egindako Dirubidezko Txostenen –Protokolo zk.: 2958-543, 1999ko abenduaren 31koen- Azterketari buruzko Txostenaren hitzez hitzezko transkripzioa da.)*